

Jesusek bezala begiratu eta jokatu

Jesus pertsonaia bakarra da historian, Berarengan sinetsi ala ez. Bere garaian, Jesusek asko eta asko liluratu egin zuen eta beste batzuek amorruez jo zuten bere aurka. Jesusen aurrean, askotarikoak izan ziren jarrera eta erantzunak, baina inor ez zen axolagabe geratu.

Erreinuko Jainko Aitarekin izan zuen bategitearen esperientziatik sortu zan Jesusen bizimodua. Hau da, esperientzia horren arabera zen bere jokaera: errealitateaz zuen ikuspuntua, esku-hartzea, aldarte pertsonala, heriotzari aurre egiteko era... Jainkoaren esku onetan zegoela sinesten zuen eta horrek 'baldintzatzen' zuen bere jokamoldea. Beraz garai hartan kultura eta erlijio mailan zuzentzat jotzen zenarekin bat ez zetorren errealitatearen eta pertsonen aurrean zuen jarrerak. Ondorioz, sarritan ez zuten ulertzen eta bere hitzak eta egintzak "subertsibotzat" zituzten: publikano eta bekatariekin batera jaten zuen, ez zuen legea eta larunbata betetzen, lepradunak ukitzen zituen, behartsuekin hartu-eman zuen... Eta jokaera hau, askatzaile, sendatzaile, barkatzaile, aringarri... zen askorentzat. Bizimodu honen eraginez, bere buruaz ahaztu egiten da eta bere bizia ematen du besteen alde.

Jesusek dei egiten digu geure buruarengan, gure ingurukoengan pentsatzeari utzi eta arretagunea besteengan, batez ere ahulenengan, jar dezagun.

Nola kokatzen gara bizitzea dagokigun errealitatearen aurrean?

Jesusek bezala begiratu: begi errukitsuekin

- Samariar ona: Lukas 10, 29-37
- Eman zeuek jaten: Markos 6, 30-44 / Mateo 14, 13-21...

Jesusek bezala jokatu

Jesusek sendatu egiten du...

Zein aukera izaten dugu gure inguruan "sendatzeko"?

- Bartimeo: Markos 10, 46-52
- Elbarria sendatzen du: Lukas 5, 17-25
- Jairoren alaba: Markos 5, 21-43

Jesusek kontsolatu, barkatu... egiten du

Gure bizitzan badugu horrelako jarrerarik? Nola ikas dezakegu horrela jokatzeko?

- Emakume adulteriogilea: Joan 8, 1-11;
- Barkamenari buruzko parabola: Mateo 18, 23-35...,
- Zakeo: Lukas 19, 1-9;
- Aita ona: Lukas 15, 11-32

Jesus zerbitzaria da...

- Oinak garbitu: Joan 13, 1-15

Jesusek bizitza on eta zorionsua proposatzen digu...

- Zoriontasunak: Mateo 5, 1-10

Jesus Jainkoarengan fidatzen da...

- Jesus uraren gainean dabil: Mateo 14, 26 -30
- Aitagurea: Lukas 11, 1-13
- Gurutzean: Lukas 23, 46 eta Markos 15, 39